

aurtzaro Ikastolako Aldizkaria

TXINPART

1999 Abendua - 15. Zenbakia

Egileak: Argazkinta tailerreko ikasleak



AURKIBIDEA



HAURTZARO INFORMATZEN

ONGI ETORRIA 2 ETA 3 URTEKO IKASLE BERRIEI

1. HIRUHILABETEKO IBILALDIAK
 5. MAILAKOAK POSTA HARREMANETAN
 6. MAILAKOAK DASTA ETA DASTA
- OIARTZOKO IKASLEAK IBILALDIETAN
IRAKASLEAK ERE IKASTEN
EKUADORREKIN ELKARTASUNA



GURASOOK JAKIN DEZAGUN

ANOREXIA ETA BULIMIA: ZER DIRA?
DBH-KO KOMISIOA
DBH-KO ANTOLAKETA BERRIA
OIARTZUNGO GAZTEEI BURUZKO INKESTA



GU ERE KAZETARI

DELEGATUEKIN MINTZO



HATZAK BETE LAN

- 3 URTEKOAK LANEAN HASI DIRA
4 URTEKOAK KAZETARI LANETAN
5 URTEKOAK LIBURUTEGIAN
1. MAILAKOAK ETA ALKATEA
 2. MAILAKOAK SORONDON IBILI DIRA
 4. MAILAKOAK BARATZEN
- IKASTOLAKO OLERKARIAK



NAHASTE BORRASTE

ERREPIKA ETA OLENTZERO KOLOREZTATU
KONTINENTEAK
HEZURRAK BILATUZ
ZENBAKI JOLASA
ARKATZAREKIN JOLASEAN
PAREAK BAI?



Eguberri on !!

Gauak egunari arratsalde eta goiza laburtzen dion urte sasoi honetan, gustura egon ohi gara etxe txokoan kanpoko izotzari ihes egin nahian. Garai bateko arto-zuriketak urrun gelditu zaizkigun arren, euskaldunok beti izan dugu txolarterako joera.

Haurtzaro Ikastolakook, zuen txolarte horietako gai izan nahi genuke. Eta zuek ere gure berri izan dezazuen, hementxe duzue Ikastolako TXINPART aldizkaria.

Beraz, elkarrekin lanean jarraituko dugun itxaropenean, Eguberriak ongi-ongi pasa, eta eman urte berriari merezi duen hasiera.

Horra, horra

Gure Ikastola ...



En esta época en que la noche resta horas al día, aprovechamos para huir del frío y resguardarnos en nuestro "txoko".

La Ikastola Haurtzaro también quiere estar presente en ese "txoko", y por eso os envía un nuevo número de la revista de la Ikastola: TXINPART. De paso os deseamos una Feliz Navidad y un próspero Año 2000.

Haurtzaro Ikastolako Zuzendaritza

ONGI ETORRIAK 2 eta 3 URTEKO IKASLE BERRIAK

Haurtzaro Ikastola Oizartzungo Udal Ikastola Partzuergoarekin batera hazitzen doa. Aurtengo ikasturte berri honetan gure txalupa handi honetan partaide berriak ditugu: Beñat, Usue, Adrian, Aitzol, Nahia... Oso ikasle jatorrak dira eta dagoeneko gozatzen ari dira gure artean, negarrak eta albo batera utzi baitituzte. ONGI ETORRIA eman nahi diegu guztiei, eta gure artean gustura aurki zaitezten ahaleginak egingo ditugu. Aurrera!!

Damos la bienvenida a los nuevos retoños que nos han invadido desde septiembre. Se trata de nuevos niños y niñas, precios@s tod@s, de 2 y 3 años. Queremos que vengan a gusto y que ahora aprendan jugando.. A tod@s les deseamos una escolaridad agradable y fecunda.ii BIENVENID@S tod@s de todo corazón!!

H.H. 2 URTEKO IKASLE BERRIAK

A Taldea - Pilare Etxebeste

GORKA Aduriz Cardona
OLAIA Aduriz Esnaola
BORJA Alustiza Treku
EKAITZ Benítez Aranburu
JOSUNE Campano Garzia
MAIALEN Elorza Otaegi
AITZOL Galfarsoro Lekuona
JON Garzia Barrenetxea
AITOR Ibarguren Alzugarrai
INAKI Juaristi Oizartzabal
MAIDER Olaizola Guerrero
GOTZON Retegi Rekalde
AITOR Sagastui Arbide
OLATZ Sarasti Bengoetxea
MIRARI Urdapilleta Arruabarrena
PATRICIA Zaldua Dominguez





HAURTZARO INFORMATZEN

B Taldea - M^a Jose Arozena

JULEN Alkain Garzia
HAIZEA Castaño Coedo
IRATI Elizasu Roteta
GORKA Ezkurdia Irastorza
IZAR Fernández Díez de
LIDE Iburguren Gaztelumendi
MADDI Iburguren Gaztelumendi
LEIRE Irigorri Litago
EMILIO Martínez Hernández
UNAI Mitxelena Puy
AITZOL Salaberria Lekuona
AMETS Sarra Elizondo
AITZOL Toledo Aizpurua
AITOR Torres Gutiérrez
XABIER Trigo Pérez



C Taldea - M^a Jose Zumeta (Olatz Azpillaga)

NAHIA Apezetxea Otegi
ANE Iburguren Darzeles
ENARA Irigorri Calzada
JOSU Jimeno Porras
JOKIN Lekuona Zabala
KAREN Muñoz Etxebeste
BEÑAT Oiarbide Agirrezabala
IRATI Oiarzun Espinosa
LEIRE Olaizola Yarza
ARITZ Olarte López de Luzuriaga
JON Otegi Odriozola
IMANOL Sors Lekuona
MAIALEN Stephens Txurio
EKAIN Susperregi Iburguren
MIKEL Urdanpilleta Astibia




A taldea - Jaione Irigorri

AITZOL Arzallus
ALAIA Belunzaran
JULEN Egiguren
UDANE Eskudero
ADUR Etxebeste
IRATI Fernandez
MACARENA Hernandez
ENEKO Iparragirre
ELUSKA Leibar
MARIA Lizarraga
EKHI Mitxelena
AITOR Otermin
ITSASO Uitz

HH 3 URTEKO IKASLE BERRIAK





B taldea - *Karmele Etxebeste*

AROIA Altuna
JULEN Asteasuinzarra
XABIER Azpiroz
NEREA Azpiroz
MAIDER Azpiroz
ANDER Etxebeste
AINHOA Iragorri
IMANOL Martin
JON Olaiz
ANDREA Ozkoidi
ADRIAN Rodriguez
HAIZEA Saez de Eguilaz
UXUE Telletxea



C taldea - *Arantza López*

ITSASO Aldaia
MANEX Arruti
GORKA Calparsoro
ANE Dehesa
ARGIÑE Elizondo
EIDER Iragorri
IBAI Kortabitarte
UNAI Lopez
AITOR Mitxelena
ENARA Mugarza
IKER Otamendi
HAIZEA Paulin
LANDER Pikabea



KAIXO LAGUNAK:

GUK HIRU URTE DITUGU, HANDITU GARA ETA IRITSI ZAIGU IKASTOLARA ETORTZEKO GARAIA.
HASIERAN BELDUR PIXKA BAT GENUEN, DENA BERRIA ZELAKO: IRAKASLEA, LAGUNAK, KOMUNAK, GELA...
BAINA ORAIN GUSTURAGO GAUDE; IPUINEKIN GOZATZEN DUGU, ABESTI PILO BAT IKASTEN ARI GARA,
URKABERA JOAN GARA, HARRI TXINTXARRETAN JOLASTEN DUGU, «PSIKOMOTRIZITATE» GELARA JOATEN
GARA SALTO HANDIA HANDIAK EGITERA.

GU EZAGUTZERA ETORRI NAHIKO BAZENUTE, BADAQUIZUE NON GAUDEN.



HAURTZARO INFORMATZEN

1. HIRUHILABETEKO IRTEERAK

HAUR HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HH 1 - 2 - 3	Azaroa	Eliza	Erakusketa ikustea
HH 3	Urriak 19	Elizalde auzoa	Auzoa gaiaren lanketa: auzoa ikusi.
HH 2	Irailak 24	Basora	UDAZKENA: hosto, orbela, fruitu bilketa...
HH 1	Urriak 15	Arane baserrira	ETXEA GAIA: baserrira ikustera
HH 1	Azaroak 9	Urkabe Mendira	MENDIA ETA UDAZKENA gaiaren lanketa

LEHEN HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH 1.	Irailak 21	Zinemara	Zinemaldia
LH 1.	Irailak 22	Altzibar	Auzoak ezagutu
LH 1.	Irailak 23	Iturriotz	Auzoak ezagutu
LH 1.	Irailak 24	Elizalde	Auzoak ezagutu
LH 1.	Urriak 1	Ugaldetxo	Auzoak ezagutu
LH 1.	Urriak 29	Karrika-Ergoien	Auzoak ezagutu
LH 2.	Irailak 21	Zinemara	Zinemaldia
LH 2.	Urriak 29	Sorondo	Baserrira ingurua ezagutu
LH 3.	Irailak 21	Zinemara	Zinemaldia
LH 4.	Irailak 21	Zinemara	Zinemaldia
LH 4.	Azaroak 10-11-12	Baratze	Zikloko gaien borobilketa
LH 5.	Irailak 21	Zinemara	Zinemaldia
LH 6.	Irailak 21	Zinemara	Zinemaldia

HAURTZARO INFORMATZEN



L@s alumn@s de 5º de Educación Primaria, estamos intercambiando correspondencia con otras ikastolas.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
DBH1.	Irailak 17	Oianlekura	Elkar ezagutza
DBH1.	Urriak 26	Iruñara	Planetarium bisita Natur eta Gizarte lanketa
DBH1.	Azaroak 3	Opera	Musika entzunaldia
DBH2.	Irailak 17	Oianlekura	Elkar ezagutza
DBH2.	Azaroak 9	Zinera	"La Vida es Bella" balore lanketa
DBH3.	Azaroak 25	Azpeitira Elgoibarrera	Tren museoa eta makina-erremintaren museoa ikustera
DBH4.	Azaroak 25	Gernika Bilbo	Gernikako eta Guggenheim museoa ikustera
DBH3.-4.	Irailak 17	Arditurra	Gaiaren lanketa
Oiartzo		Donostia Atapuerca Aiako Harria	Gaiaren lanketa

BOSGARREN MAILAKO IKASLEAK BESTE IKASTOLAKO IKASLEEKIN POSTAZ HARREMANETAN JARRI GARA

Aurtengo ikasturtean 5. mailakoek euskarako saioetan, "IDATZI AURRETIK PENTSATU" lelopean, telegramak eta eskutitzak aztertu eta egiten ikasi dugu. Hau dela eta, beste ikastolakoekin POSTAZ harremantzea proposatu diegu eta beraiek onartu egin digute.

Gaur egun, Pasaia-Lezo Lizeoko 5. mailakoekin harremantzen hasi berriak gara eta era berean, Iruñako Amaiur Udal ikastolakoekin ere harremanetan jarri gara.

Gu oso gustura elkar idazten ari gara eta ilusio haundiz itxaroten ditugu, gure beste lagunen eskutitzak.


Kurtso bukaera aldera, gustatuko litzaiguke denok elkar ezagutzea eta horretarako txango bat antolatuko dugu.



HAURTZARO INFORMATZEN

DASTAMENAREN EGUNA OSPATU ZUTEN 6. MAILAKO IKASLEEK

EUROTOQUES European Sukaldarien Elkartearen ekimenez, Dastamenaren Eguna ospatu zen azaroan kontinente osoan. Euskal Herrian ere, urtero legezt, elkarteko sukaldariak ikastolara etorri ziren dastamenaren inguruko hainbat kontzeptu argitzera. Haurtzaro ikastolako 6. mailako ikasleek Iñaki Amu-tsastegi, Lintzirin hoteleko sukaldaria, eta Xebas Eskamendi, Hotel Londreseko sukaldariaren bisita izan zuten.



IRAKASLEAK ERE IKASTEN

Azkeneko hiru bat ikasturteko ohiturari jarraituz, eta ikasturteari hasiera emanez, Haurtzaroko irakasleek ere ikasle bihurtzeko parada izaten dute.

Halaxe da bai, joan den irailaren 3an Aranzadiko partaidea eta Haurtzaroko gurasoa den Jose Angel Torres adituarekin bildu ziren eta Oiartzungo haranaren geomorfologia aztertzeko parada izan zuten. Hasiera Elurretzeko lepoan eman zioten. Hango esplikazioak jaso ondoren, Leuneko arkaitzetara, hantzik, berriz, Egi-eder aldera... Horko paleozoikoa, hango pre-kanbrikoa... Hurrengo saioa ikasturte amaieran eman beharko diote, ez baizuten dena saio batean bukatu.

Lerro hauen bitartez gure eskerrik beroenak bai Jose Angeli, baita Adolfo Leibarri ere Haurtzaroko irakasleekin izan duten jarrerarengatik. Mila esker!!

El profesorado de Haurtzaro comenzó el curso 1999/2000 con una salida formativa. Esta vez se trataba de conocer y profundizar en la historia geomorfológica del valle de Oiartzun. Contaron para ello con el experto José Ángel Torres, miembro de Aranzadi y padre de la Ikastola. Agradecemos mediante estas líneas tanto a José Ángel como a Adolfo Leibar por la disposición y ayuda que nos han brindado siempre.





OIARTZO BATXILERGO IKASTOLAKO IRTEERAK:

ATAPUERCA:GIZAKIAREN JATORRIAZ BERRI GEHIAGO JAKITERA

Joan zen urriaren 22an, Oiartzo Batxilergo Ikastolako Biologiako bi taldeak (1C eta 2B) Euskal Herriko mugak zeharkatu eta Burgos alderaino irten ginen, bi helbururi jarraiki: Atapuercako aztarnategiak eta bide batez, Burgosko katedrala ere ezagutzea.


Atapuerca Burgostik 15 kilometrora dagoen mendilerroa da, Ibeas de Juarros deritzan herriaren ondoan hain zuzen. Bertan, XIX. mendean trenbidea egiten hasi zirenean fosilez betetako zenbait barrunbe aurkitu zituzten. Lehenengo giza aztarnak 1976an agertu ziren eta 1994an egin zuten aurkikuntzarik handiena: Europan orain arte ezagutzen diren giza aztarnarik zaharrenak atzeman zituzten, orain 800 000 urtekoak.

Ikasleok aztarnategiak ikusteko aukera izan genuen eta ondoren, aztarna horien inguruko informazio guztia jasotzeko, bertako museora eraman gintuzten.

Burgos ondoan izaki, bertako katedrale gotiko ospetsua ere ezagutzeko aprobetxatu genuen eguna. Esan beharra dago eguraldia lagun izan ez arren eta bidaia luze samarra gertatu, erabat gogoangarria egin zitzaigula irteera hau. Beraz, zuek ere badakizue, gustuko baduzue erreserba egin eta ez ezazue leku interesgarri hauek ezagutzeko aukera galdu!



Oiartzo Ikastolako gure biologoak Burgosko plazan.



HAURTZARO INFORMATZEN

GURE INGURUEN HISTORIA GEOMORFOLOGIKOEN IBILALDIA

Urriaren erdialdera -Biologia arloko ikasleak Burgosa abiatu ziren egun berean- Oiartzo Batxilergo Ikastolako bigarren mailako giza eta gizarte zientzietako ikasleok, Geografia ikasten dihardugunok, Oarsoaldeko historia geomorfologikoa "in situ" ezagutzeko asmoz Arditurriko meategira txangoa egin genuen. Goizeko zortzietarako Isasti parean ginen. Isasti errota zen lehen eta etxearen hormetan 1933. urtean ura noraino iritsi zen idatzita ikusi genuen. Ondoren bidegorrian zehar abiatu ginen. Baratzak, kuaternarioko terrazetan...Gure adiera azkar aurkitu genituen tuneletan dauden estratueta gelditu zen. Pixkana Kretazikoko, Jurasikoko, Triasikoko...hondarrarri, konglomeratu, marga eta lurretan gure burua aurkitu genuen (harriak, lurrak... izen hartu zuten). Bidegorrian zehar dauden zuhaitzek ere izen hartu zuten: haritz, pago, arte, artelatz, astigar, zumar, ereinotz...Ibaian harkoxkor, uharri, meandroak eta mendiek milioika urtetako historia gordearen zati txiki bat eskaini ziguten.

Haritz eder pean gosaldu dugu. Eguraldiak okerrera jo du. Hodeitsu, baina ateri egon da oraindaino. Meatzetara iritsi garen arte. Lainoak ugaritu eta erasoa iritsi da. Meazulo batean sartuko gara. Aire hotza dator barrendik; nonbait kanpoko aire hezean presio baxuagoa du eta barnekoa erakartzen du... Azkenik, errekaetan mineral ezberdin pila... Nola azaleratuak? Nork? Nondik aterak? Meazulo ikusgarri bezain arriskutsuak...Atertu du. Itzulera. Zeinen azkar doazen neska horiek. Norako presa dute? Usu demontre iritsi gara berriro Isasti parera. Zer ari dira neska horiek? A, bai, telefonotik deika. Hau jendea; ez dute pausu bat bera ere eman nahi. A, ez, ezin dute bihotzeko azukre koxkorretik segundo bat bera ere urruti egon. Beno, ezin ukatu: ibilaldi interesgarria izan da.




Oiartzoko 2Ako geologoak Aiako Harriira egindako txangoan.



FILOSOFOAK DONOSTIAKO JUSTIZIA JAUREGIAN

Giza eta gizarte zientzietako gainontzeko ikasleek, Geografiaren ordeztu Filosofia lantzen dugunok, Donostiako Entzutegi Probintzialeko areto bat bisitatu genuen urriaren 22ko egun horretan. Filosofiako klasetan Platonen Errepublikak irakurri dugu eta gizarte ideiala zein izan daitekeen aztertu. Justiziaren kontzeptua sakonki landu dugu, beraz eta horregatik, gure nahia gure gizartean praktikan Justizia nola aplikatzen den gertutik ikustea zenez, epaiketa bat bertatik bertara ikustera abiatu ginen Donostiako Justizia jauregira. Baina haraino hurbildu eta ostiraletan epaiketarik egiten ez dela adierazi ziguten. Hala ere, gure irakasleak bertako langile bat ezagutzen duenari esker Entzutegiko aretoa ez ezik epaiketa gela, togak gordetzeko lekua...eta oro har funtzionamenduarekin lotutako guztia erakutsi ziguten.

Guk botatako galdera guztiak ere erantzun zituztenez, Justizia legalaz behintzat, zerbait argitu zigutela lakoan etxera itzuli ginen... Baina bada oraindik galdera bat buruan bueltaka dabilkiguna: beti Justizia egiten al dute epaileek beren epaiekin?





HAURTZARO INFORMATZEN

ELKARTASUNA EKUADORREKIN

Dakizuen bezala, Oiartzungo herrian hainbeste urtetan apaiz izan genuen Joxe Mari Garmendia Ekuador aldera joan zen misiolari lanetan. Bertan burutzen ari den lana dela eta, jakin genuen oso egoera ekonomiko latza ari zirela pairatzen.

Hori zela eta, **errifa bat antolatu genuen herri mailan, Joxe Mari apaiza burutzen ari zen giza-jardueren laguntzarako**. Saria arkume eder bat izan zen. Beraz, eta jakinda zertarako bideratuko zen diru-laguntza hau, oiartzuar askok, tartean ikastolako familia ugari, esku bat bota zuten, espero genuen bezala.

Errifa horrekin **466.000 pezeta jaso genituen** eta berehala bidali genituen Ekuador aldera, herriko bi oiartzuarren bitartez. Pentsatuko duzuen bezala, Joxe Mari izugarri poztu zen jasotako diruarekin.

Bukatzeko, aipatu nahi dugu **herrian zehar "El Niño"ko loteria dagoela salgai eta jasotako dirua ere Joxe Mari Garmendiari bidaliko zaiola**. Bera dagoen herrian aroztegia eta anbulategia jarri nahi ditu martxan gure Joxe Marik. Lagun diezaigun bada!!

Joxe Mari Garmendia, sacerdote durante muchos años en Oiartzun, se trasladó a Ecuador como misionero para realizar una labor social. Debido a la crisis económica que en estos momentos está padeciendo Ecuador, **hacia junio se organizó una rifa popular para ayudar económicamente en esa labor humanitaria**.

La rifa se puso a la venta en la secretaría de la ikastola, y se sorteó un hermoso cordero. **Se recaudaron 466.000 pts** que fueron enviadas por medio de dos oiartzuarras. En este momento en el bar Anixeta de Altzibar se está vendiendo lotería del Niño para la misma labor humanitaria: Joxe Mari quiere poner en marcha una carpintería y un dispensario.

Por medio de estas líneas agradecemos la aportación que las familias de la Ikastola han realizado y realizarán. **Eskerrik asko!!**



JOXE MARI GARMENDIA : APAIZA

*Ekuadorren burutzen
ari den giza-jardueren
laguntzarako gozketan
parte har ezazu*

"HAURRA"REN (NIÑO) LOTERIA EROS EZAZU

Urterikaren 6eko sarian 400 pezeta jakatu eta 100 pezetako laguntza

Guztira: 500 pta. txarteletako




HATZAK BETE LAN



3 URTEKOAK ERE LANEAN HASI DIRA



Hauak dira 3 urtekoen sinadurak.





HATZAK BETE LAN

4 URTEKOAK KAZETARI LANETAN

TXIRRITX KILKIRRAK PROPOSATUTA UDAZKENA GAIA LANDU DUGU AZAROAN.
UDAZKENEKO FRUITUAK IZENDATU, ZERRENDATU, IKUSI, IKUTU ETA AZKENEAN MERIENDA PRES-
TATU GENUEN.

FRUITUAK SAILKATU GENITUEN, ZURITU ETA JAN ETA JAN ARITU GINEN. ARGAZKIAK ATERA GENI-
TUEN ETA HAUEKIN GELAKO ALDIZKARI BAT ANTOLATU DUGU. HEMEN DUZUE LEHEN ALEA.

AZAROA

ERLEAK



LORE PEPE DON MARIA
JUEANE ARUNE 11/01/03 2 AIO4
HAIZEA IAGAAW 10/01/03 2 AIO4
IKMR

4 URTEKO NESKA MUTILEN ALDIZKARIA

HAUNDI



ANDONI OLATA 6/01/03 2 AIO4
IMIDO ANDER 11/01/03 2 AIO4
JULEN FORTESA 10/01/03 2 AIO4
AIA MAITE JONANDER 11/01/03 2 AIO4

4 URTEKO NESKA MUTILEN ALDIZKARIA

AZAROA

B
E
L
T
X
A



LORE PEPE DON MARIA
JUEANE ARUNE 11/01/03 2 AIO4
HAIZEA IAGAAW 10/01/03 2 AIO4
IKMR

4 URTEKO NESKA MUTILEN ALDIZKARIA

AZAROA



5 URTEKOAK ETA IRAKURRI ETA IRAKURRI



Asteartero HHko 3. mailako neska mutilak udal liburutegia bisitatzen dugu. Gure andereñoarekin bidean poliki eta arretaz lagunari esku emanda joaten gara.

Liburutegira iristen garenean isil-isilik sartzen gara neska mutil handiak ikasten aritzen direlako. Gero apaletatik ipuinak hartu, ikusi eta irakurri egiten ditugu hango aulki txikitan eserita. Ipuinak ikusi ondoren gometxen kolorearen baitan apaletan jasotzen ditugu.

Joaten garen bakoitzean ipuin batzuk aukeratu eta Anak edo Enrikek ikastola ekartzeko prestatu egiten dizkigute.

Liburutegira joatea asko gustatzen zaigu; horrela ipuin desberdin irakurri, pertsonai desberdinak ezagutu (Babar, Susi espagetiak jaten, Blas, Txanogorritxu, Zesar eta Ernestina...) abentura berri gehiago jakin eta horrela ipuinak irakurriz asko dibertitzen gara.

Besterik gabe, zuek denok ere anima zaitezte.

Agur.
HH3. Ikasleak

¿Qué no conoces la biblioteca del pueblo? L@s chaval@s de cinco años te lo contarán, pues para ell@s es algo habitual y ameno.



AZAROA

ERLEAK



LINE PEIP DON MARI
UNE ANE ANNE 11/103 DAIOH
HAIZEH LAOA ANT PROBI MAPALEN
IKMR

4URTEKO NESKA MUTILEN
ALDIZKARIA

HATZAK BETE LAN



MERIENDA PRESTATZEN





HAUNDI



ANTONI OLARIA GORIATZ A/MGER
 IMILLO ANDER UDARRA IZAR
 JULEN FORTESA KANON
 IAIIA MAITE JONANDER ENEKO

4 URTEKO NESKA MUTILEN
ALDIZKARIA

AZAROA



B

URDIN

E

BORDA

L

GORRI

T

LARANJA

X

HORI

A

MAHORI



GAUE, MIKE LA, OENATE, IARRA
IRAI ALI, IRAI ISASA, LUIS,
ISASA, GARAI (BENJAT OLIVERA)
AMAITA, URTZ (UGAITZ) BE
ME KAL (UGAITZ) BE

4 URTEKO NESKA MUTILEN
ALDIZKARIA

AZAROA



OIARTZUNGO ALKATEA IKASTOLAN

Xabier Irigorri alkateari elkarrizketa egin ondoren 1go mailakoak ateratako ondorioak hauek dira: Idazten ikasten ari direnez fase desberdinetako idazlanak dituzue hauek.

Éstas son algunas de las conclusiones a las que llegaron l@s alumn@s de 1º de E.P. después de hablar con el nuevo alcalde del pueblo, Xabier Irigorri.



ANDERENUA
GAPZTOAZEN
UDAL ETXEAN
DIRUASKO ZEGOEN
ALABAT DAUKA

XABIER IRAGORRI / ALKATEA
EZ ZEUZ ZEIT
EZ ZIOTEN HITZEGITEN UZTEN
EZKZE
EZ ZEN NEKATZEN
BILRUZE AZEIN
BIAIA LOZEA ZEN
VRRUTZEOIKTOLA
ZEGON IKASTOLA



SORONDORA BIDAIA, LH 2. MAILAKOAK



D. 2. mailakoak Sorondora



Ospitalitate la eta
Bidaia argazkia
atara

SORONDORA BIDAIA

Ju 2. mailakoak Sorondora joan ginen.
Baserriak eta ugaztako gureak iberru guntun
lanta eta iberru guntun ugaztunak, gaztunak,
intzuntunak, laura eta guntun hantre konaritar
laturak izango zituela, eta iturria iberru guntun
laurea agertuta zegoen. eta gero Ospitalitate
amatorak iritzi ginen eta laura argazkia
atara guntun. eta amatorak jantzerak guntun
eta nuge bat hita iberru guntun. gero
amatorak nuge guntun eta iritzi ginen
hau xuri eta esgaldak guntun, eta gero
Iturria eta Iturria bertikatutza orpate
guntun. gero jolastu eta ginen. eta
autobusaren jantzerak ginen eta
autobusaren iritzi guntun autobus hantelara
etorri ginen.



BARATZE? AH! OH! GUAI! BARATZE!

L.H. 4. mailako ikasle eta irakasleak Baratzen egon gara hiru egunez. Zer da, nola pasako dugu, zer egin behar dugu, janaria nolakoa da,... galdera guzti hauekin joan ziren haurrak.

Bertatik itzuli ondoren hau esan dute:

"Oiloei jaten ematen oso ondo pasa nuen, banaka banaka hartzen zituztelako garagar aleak eta oso azkar gainera. Eskua ez zidaten ikuitu ere egin."

Eneko Irazusta

"Baratze asko gustatu zait, gauza asko zituelako eta gauza batzuk ikasi ditudalako, adibidez: Perretxi-kuei buruz, erlegintza, lanadaretza, egurgintza eta ikuluko gauzak."

Borja Perianez



"Baratzen zaldian ibili ginen eta niri tokatzen zitzaidanean, berriro atzera joan nintzen, beldurra nuelako. Behorrek Pitusa izena zuen eta bere semeak Eguzki. Pitusa ernai dago eta tripa oso handia zuen. Orain janariataz hitzegingo dut: janari guztia oso ona zegoen, enpanadilak ezik. Babarrunak oso onak zeuden, etxeokak bezala.

Gu iritsi aurretik beste ikastetxe batekoak zeuden eta beti futbolineko bola hartzen zuten eta guk ezin genuen jolastu.

Lan guztiak gustatu zitzaizkidan eta hauek egin nituen: Egurgintza, zaldiari eta oiloei janaria eman, zaldia orraztu, erlegintza, perretxiko bilketa eta azkenean txerriari janaria eman.

Lo egiteko garaian Naroa eta ni elkarrekin ginen, baina gero Erika etorri zen eta bi oheak elkartu eta ni erdian geratu nintzen: Naroa izkina batean eta Erika bestean.

Oso ondo pasa nuen Baratzen.!

Irati Gaztelumendi

¡Asteazkenean Baratzera joan ginen eta goizean Gernikan gelditu ginen. Gernikako arbola eta bere umea ikusi genituen. Gero Baratzera joan eta tailer asko egin genituen: Egurgintza, erlegintza, baratzeta, ikuilua eta perretxiko bilketa.

Enetz Olasagasti

Zer uste duzue? Ongi pasa ote zuten?

L@s alumn@s de 4º de Educación Primaria nos han contado las distintas experiencias que han vivido en la granja escuela Baratze: los mini paseos a caballo, cómo han alimentado a los animales que allí viven... Una gran cantidad de actividades en las que han aprendido y han disfrutado.



IKASTOLAKO OLERKARIAK



Euskararen normalizazioaren bide luze eta bihurrian lan asko daukagu egiteko oraindik, bai ezagutza mailan, bai erabilpenari dagokionean. Bietan motibazioa da ezten eraginkorrena. Motibaziorik gabe aurrerapen gutxi egin dezakegu.

Ikasleen euskararen erabilpena normalizatzeko, gure hizkuntza optimizatzea komeni zaigu. Horretarako proiektu txikiak garatzen ditugu ikastolan, EUSKARA gurekin batera haz dadin. Ekintza horiek Haurtzaroko proiektu kurrikularrean txertatu ditugu.

Horietako bat herriko prosa eta poesia lehiaketa dugu. Aurten ere LHko 3. mailatik gorakoak eta DBHko guztiak hartzen dute parte. Horra ondoren LHko 6. mailako eta DBHko 2. zikloko olerkarien muestratxo batzuk.

Dentro del proyecto de normalización del Euskera en Oiartzun, el concurso anual de prosa y poesía que organiza el ayuntamiento, es una cita obligada para l@s alumn@s de la ikastola que incluyen este certamen en el proyecto curricular.

He aquí unos ejemplos de los futuros poetas de nuestro pueblo.

HATZAK
BETE LAN

Nahigabea han
nahigabea hemen
baina bizitzan dena ez da pairamen,
poztasuna eta alaitasuna
noiznahi dira nabarmen.

Txori kantarien abestia,
gogoz jotzen duen eguzkia,
kobazulo amaierako argia.

Jaio berri den lorea,
euriaren azpiko aterpea,
gau ilun bateko kolorea.

Zer da politago
zu alai ikustea baino?
Zer ederrago
irrifar bat jasotzea baino?
Zer hobea
zure poza sentitzea baino?



Ura jaso duen landarea,
egun beroenetako haizea,
zelai zabal eta berdea.

Diz-dizka dagoen izarra,
maitasunarenugarra,
eguzkiaren indarra.

Alaitasunaren ezaugarri
animoaren pizgarri.

Momentu zailenetan ere, ez etsi,
zure irribarrea erakutsi,
tristuran murgiltzeak
ez baitu merezi.

Nahigabearen aurrean
erakutsi balorea
ez izan babalorea,
penak ahaztu eta poztea
ez al da hobea?





DBHko LAUGARREN MAILAKO IKASLEEN HIRU ARGUDIO TESTU

MODA: GURE ONERAKO ALA TXARRERAKO.

A ze desastrea !

90, 60, 90, edo hobeto esanda, 60, 30, 60 gaur egun. Taila bitxiak, zergatik ?

Gure gizartean, arazo handia dago modarekin; jantzi behar duzunak, modarekin zerikusia eduki behar du, bestela jendeak goitik-behera begiratu eta "biluztu" egiten zaitu. Baina norbera ez al da libre nahi duena janzteko, modarekin zerikusia eduki ala ez ?

Aurretik aipatutako neurri horiek 60, 30, 60, arazo larri ugari ekarri dute pertsonengan. Fabriketan egin-dako galtzak, kamisetak, gonak etab. oso estuak dira eta jendeak galtzetan edo edozein arropetan sartzeko nola egin pentsatzen du. Batzuk oso ondo, kirolarekin batera argaltzen dira, beste batzuk, ordea, galtza horietan besterik gabe sartzen dira beren konstituzioa horrelakoa delako eta hirugarren batzuk, eta hau larriena, jateari uzten diote. Ondo dago gorputza garbitzeko edo, gutxiago jatea edo jaten duzunik gauza batzuk saihestea, baina pertsona hauen helburua ez da gorputza garbitzea, argaltzea baizik. Hasiera batean ondo eramaten dute, eta hain ondo eramateagatik gaixotu egiten dira. Ez dira jabetzen beren gaixotasunaz, eta jabetzen direnerako agian berandu da. Gaixotasun honi anorexia deritzo.

Nahiz eta galtza batzuk oso modan egon eta zuri beste batzuk gustatu, zergatik lotsa eduki hauek janzteko? Ez dugu lotsatu behar gustatzen zaigunaz. Dena dela pertsonok ez dugu horrela jokatzeko, beti besteak zer esango dutenaz arduratzen gara. Askotan, bati bere estiloa ikusten diozu eta arrazoi desberdinengatik kopiatu egiten diozu; zergatik ez zuk zeure estilo propioa eduki?

Argi dago, janzkera modarekin lotu-lotua dagoela eta askotan pentsatzen dut ea hori gure onerako ala txarrerako izango ote den.



La moda: ¿para nuestro bien o para nuestro mal? Nos dejamos llevar por ella por el que dirán sin muchas veces atrevernos a ser nosotr@s mism@s.



LIBURUEN ARTEA

Jende askok esaten du, eta batez ere nire adinean: irakurtzea aspergarria dela eta horrelako gauzak. Ez dute ulertzen, liburuak ere artea direla. Eta hala da, liburuak, antza denez, ez dira berdinak. Guztiak dira ezuste kaxa bat, hau da, mundu desberdin misteriotso bat. Zoritxarrez, ordea, jendeak ez du horrela ikusten.

Irakurtzeak, alde batetik, imajinazioa piztu eta zabaltzen dizu. Zer izango ginen gu, imajinaziorik gabe? Ezer; hutsaren hurrena. Bestalde, batzuetan ere errealitatek urruntzera gonbidatzen zaitu. Beldurgarria izan daiteke, baina baita zoragarria ere. Ildo beretik jarraituz, esan daiteke gehienetan bizitza ulertzen laguntzen dizula. Agian, errealitatek beste modu batera, nolanahi ere zure eta liburuaren arteko sekretutxoia izango balitz bezala. Era berean, irakurle amorratuak ez direnak, liburuak aspergarriak eta aspertu besterik ez dutela egiten esan ohi dute. Esanak esan, adierazitakoa alferkeria soil bat da. Lehengo hariari jarraituz, aipatu: ikasketa aldetik irakurtzeak asko laguntzen duela. Ortografiako "irakasle" bat bezelakoxea da eta era berean, gure hiztegitxo partikularra zabaltzen dugu.

Amai dezadan esanez, animatzeko liburu bat hartu eta irakurtzen; ez da ezer arraroa, artea baizik.



Entre libros un mundo lleno de imaginación,
sin la cual ¿qué seríamos?



NERABEEK LIBERTATEA: BAI ALA EZ?

Gaztaroa, pertsona orok gure bizitzan izaten dugun etapa zail, baina era berean, polita da. Zaila diot; aldaketen momentua deleko, bai fisikoki eta baita psikikoki ere. Polita, berriz, aldaketa hauek bizitzea guztiz zoragarria iruditzen zaidalako eta, gainera, esperientzia berriak, gehienak behintzat, nerabe zarenean bizitzen dituzulako. Hala ere, eskarmentu hauek bizitzeko aukera utzi behar da, eta hori da guraso askok eragozten dutena. Gazte askori bere gaztaroa galerazten diete; etxean geratzea behartuz, gehien bat ikasketak direla eta, edo, lagunekin atera beharrean, beraiekin ateratzea derrigortzen dituzte nerabe horiek. Horren ondorioz, lagunak gabe geratzen dira, bakarrik. Gero, guraso hoiek "lagunak direla munduko gauzarik ederrena" esango dute.

Egia da, nerabezaroa adin guztiz txoraa dela eta egin behar ez genituzkeen gauzak egiten ditugula, baita probatu behar ez genituzkeen gauzak probatu ere, baina hori ez al da esperientzia berriak bizitzea? Erorita ikasten omen da ibiltzen, gazteak azken finean, hori da egiten duguna, komenigarriak ez diren gauzak eginaz ikasi ez ditugula burutu behar; eta nik behintzat, horri deitzen diot heldutasunera iristea.

Gaztearen eginbeharrak ez dira bere ohea egitea edo irakasleak bidalitako etxerako lanak burutzea soilik, gazteak eginbehar asko ditu, hasieran aipatutakoez gain; gazteak bere kabuz edo elkarbizitzen jakin behar du. Bera bezalakoekin, hau da, nerabeekin elkarbizitzen eta beraien artean arazoak konpontzen ikasi behar du, bestela; ez da inoiz heldutasunera iritsiko, ez baitu bere buruarengan konfiantzarik edukiko.

Heldu askok diote, gazteria gero eta okerragoa dela, eta ez duela gauza onik egiten, baina zergatik ote da horrela? Nire ustetan, helduek ez dute konfiantzarik gudan eta ez dute, askotan, gurekin ezertarako kontatzen, horiek, indargabe sentiarazten gaitu eta indargabe honek, edozer egitera bultzatzen gaitu.

Gazteak, txoroak izango gara batzuetan eta baita ulergaitzak ere, baina tontoak ez gara eta badauzkagu gure sentimenduak.

Beraz, eta amaitzeko, nerabeari liberekin minimo bat emango balitzaio, askoz alaiago eta zoriontsuago izango litzateke. Nik neuk diot, gazte batek alegia

La adolescencia: Libertad sí o no
Para crecer tenemos que experimentar y por distintos motivos muchas veces se nos niegan estas experiencias





GURASOOK JAKIN DEZAGUN

ANOREXIA-BULIMIA: HITZALDIAK IKASTOLAN

DBH 1 zikloko ikasleen "elikadura" tailerraren inizatiba aprobetxatuz Haurtzaro Ikastolak ikasle, irakasle eta gurasoentzat hitzaldiak antolatu ditu gai honen inguruan, egun eta ordu desberdinetan estamentuaren arabera.

Hitzaldiaren nondik-norakoa labur-bilduz hauxe litzateke:

Anorexia-Bulimia: *Janari impulsoen arazoa?*
Arazo psikologikoa?
Janari impulso eta alderdi psikologikoen arazoa?

- Arazo nagusiak
- Sintomatologia
- Arrisku populazioa
- Eskuhartzea (ikastola-etxea-espezialista)
- Prebentzioa

Hizlariak bi izan dira:

- DBH 1 mailako ikasleentzat Carlos Bretos (herriko pediatra)
- DBH 2 mailako ikasle eta DBHko irakasleentzat eta DBHko gurasoentzat Luciano Altuna psikiatra.

Gai honetan sakontzeko interesa edukiz gero gure ustez interesgarria suerta daitezkeen bi liburuen bibliografia eskeintzen dizuegu:

"Riesgo y prevención en la anorexia-bulimia"

Argitaletxea: Martinez Roca

Egilea: Monserrat Cervera

"La anorexia de Gonzalo Moronde"

Argitaletxea: Temas de hoy



La ikastola Haurtzaro preocupada por las enfermedades que están de moda entre nuestro jovencitos, hablamos de la anorexia y la bulimia, ha organizado junto al Ambulatorio de Oiartzun charlas informativas sobre dicho tema. Ha estado en la ESO Luciano Altuna para prevenir dichas enfermedades. Por otra parte se ha organizado también una charla con Carlos Bretos, pediatra, para tratar el tema de la alimentación como base de la salud.



DBHko KOMISIOA

Hautzaro ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloko ikasleek ikastolako funtzionamenduan, hezkuntza gaien inguruan etapa honi dagozkion gaietan parte hartzeko eskubidea dute.

Partehartzea ziurtatzeko DBH 2. zikloko gelako bi ordezkari izendatu dira. Gela ordezkarien eginkizuna hauxe izan da: funtzionamenduan, barne bizitzan eta hezkuntza gaietan sortzen diren behar eta arazoetan gelakoen ordezkari izango dira, irakasle, tutore eta Zuzendaritza taldearen aurrean.

Hala ere, partehartzea benetakoa izan dadin, **DBH-ko komisia** sortu da. Bertan, ordezkari guztien artean negoziatu ondoren, bik hartuko dute parte. Gainera, irakasleen ordezkari bat, gurasoen ordezkari bat eta Zuzendaritzako ordezkari bat ere daude. Hauexek dira aurtengo partaideak:

- Ikasleen ordezkariak: Itsasne ALVAREZ eta Alazne INZIARTE.
- Irakasleen ordezkaria: Iñaki LERTXUNDI.
- Gurasoen ordezkaria: Iñaki MAKUSO.
- Zuzendaritzako ordezkaria: Jaione UGALDEBERE

KOMISIOAREN FUNTZIOAK:

- Komisia honen egitekorik nagusia funtzionamendu araudia eztabaidatu, osatu, onarpena bideratu eta betetze maila kontrolatzea izango da.
- Komisia hau kurtso hasieran bilduko da, eta hortik aurrera, beharren baitan, edozein partaidek egin dezake deialdi berria Zuzendaritzari adierazi ondoren.
- Erabaki bat hartzeko garaian, modu honetara banatuko dira botoak: ikasleek 2 boto, irakasleek 1, eta gurasoek 1. Zuzendaritzako ordezkariak ez du botorik izango. Nolanahi ere, ahal dela erabakiak aho batez hartuko dira, bozketara iritsi gabe. Erabaki ezineko kasuetan, Ikastolako organo gorenetara joko da.

La comisión de la ESO pretende impulsar la participación de I@s alumn@s del 2º ciclo de la ESO, como estamento de la ikastola que son, para que den a conocer sus opiniones en temas que les afecten directamente. Esta comisión está formada por dos alumn@s (Alazne Inziarte e Itsasne Alvarez), un padre (Iñaki Makuso), un profesor (Iñaki Lertxundi) y un miembro de la dirección (Jaione Ugaldebere).



DBH ETAPAREN ANTOLAKETA BERRIA

Hautzaro ikastolak 0 urtetik Unibertsitatera bitarteko irakaskuntza osoa euskaraz egiteko aukera eskaintzen du: 0-3 urte Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren bitartez; 3-16 urte Hautzaro ikastolan eta 16-18 urte Oiartzo batxilergo ikastolan.

Hezkuntzako etapa bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta etapa bakoitzeko kideak antzeko berezitasunak izan ohi ditu.

DBHko etapa definienez NERABEZAROaren etapa moduan. Etapa honek entitate propioa dauka eta esperimentazioa da etapa honen oinarria. 12-16 urteko ikasleak egin behar duen bidea, hasiera batean biologikoki heltze bat etorriko zaio, pubertaroa hain zuzen ere. Baina nerabea izatea hautzarotik heldua izatearen artekoa baino zerbait gehiago da: aldaketen garaia da, nortasunaren bilakaera da.

Hautzaro ikastolak hasieratik argi eduki du aintzakotzat hartu behar zuela nerabezaroaren etapa hau ere. Horretarako antolaketa desberdina jarri du martxan DBHrako: batetik DBHko ikasleria osoa ikastolako eraikuntza "berria" kokatu du: DBH 1. maila 2. solairuan, DBH 2. eta 3. mailak 3. solairuan eta DBH 4. maila 4. solairuan. Bestetik, gaia aztertu ondoren, erabaki genuen etapa honek ordutegi propioa izan behar zuela. Horrela, bada, goizeko klaseak 8:00etan hasten dira eta eguerdiko 13:05ean amaitzen dira. Arratsaldeko saioak, berriz, 14:30etik 16:30era, asteazken eta ostiraletan izan ezik.

Ordutegi berri honekin astean saio bat gehiago egiten dugu: 30 saio izan beharrean orain arte bezala, 31 saio egitera pasa gara. Saio horretan aukera ederra izan dugu gurasoengandik sortutako eskakizun bati erantzuteko: heziketa afektibo-sexuala gaiari, hain zuzen ere.

Bukatzeko, esan behar dugu hasiera batean positiboki baloratzen dugula aldaketa hau guztia. Nolanahi ere, ikasturtean zehar sakonki ebaluatuko dugun gaia izango da.

Por medio de nuestra ikastola ofrecemos la posibilidad de escolarizar a l@s niñ@s desde los 0 hasta los 18 años. Cada etapa escolar viene determinada por una serie de características semejantes a tod@s l@s integrantes de la misma.

Podemos definir la etapa de la ESO como la etapa de la adolescencia. Etapa con entidad propia que viene marcada por la experimentación. Ese camino a recorrer supone, en primer lugar, la maduración biológica o pubertad. Pero ser adolescente es algo más que el tránsito entre la infancia y la vida adulta. Es época de cambios, de búsqueda de la propia identidad.

Hautzaro ikastola ha tenido en consideración esta etapa de la adolescencia por medio de una organización diferente del resto de las etapas. Para ello ha ubicado a todo el alumnado de la ESO en el edificio "nuevo" de la ikastola, en sus diferentes plantas. Por otra parte, se ha analizado y decidido que esta etapa tuviera también un horario diferente: así pues, las clases comienzan a las 8:00 h para finalizar a las 13:05 h la sesión matinal. Las clases de la tarde se reanudan a las 14:30 h hasta las 16:30 h (salvo los miércoles y los viernes).

Además con este nuevo horario escolar, ya que contamos con una sesión más que antes (31 sesiones semanales), hemos podido atender a una de las mayores demandas de las familias de esta etapa: impartir la educación afectivo-sexual. Se trata, pues, de un cambio general en principio positivo que evaluaremos con mayor profundidad a lo largo del curso escolar.



OIARTZUNGO GAZTEEI BURUZKO INKESTA

Leire Zumeta

N.A. Sagarzazu-ren eskutik

Inkesta honen helburu nagusia, Oiartzunen bizi diren gazteen errealitatea gertutik ezagutzeko lehen urratsak ematea da.

Honetarako, Haurtzaro Ikastolako DBHko ikasleei inkesta bat pasa diegu.

Guztira 208 ikasle izan dira inkestatuak eta bertan atera diren emaitzak zuentzat interesgarriak izango direlakoan gaude.

Lehenik eta behin, ikerketa honetan lagundu diguten guztiei gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu.


Besteak beste, Haurtzaro Ikastolako DBHko ikasleei eta irakasleei, Joxin Azkueri eta Jaione Ugaldebereri.

Mila esker.

1- Ikastetxetik atera eta gero egiten dituzun ekintzak aipatu

Taula hau ikusiz gero, kontura gaitezke ikastetxe honetako 12-16 urte bitarteko gazteen ekintza estraskolarren arteaz nabarmenena ingelesa eta kirolen bat egitea dela. Azken multzo honetan mutilek, ohi den bezala, kirolik gustokoena futbola dute eta nesken artean, berriz, kirol ezberdinak aukeratzeko joera dago (adibidez, igeriketa, atletismoa, saskibaloia, aerobika,...).

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
MUSIKA	35	12	47
INSTRUMENTUA	51	23	74
FUTBOLA	5	64	69
KIROLA	56	29	85
HIZKUNTZA	44	34	78
PARTIKULARRA	10	15	25
BESTEAK	65	26	91
EZER EZ	2	5	7





GURASOOK JAKIN DEZAGUN

2- Ekintza hauek zergatik egiten dituzu?


Gazte gehienek bere inkestetan adierazi digutenaren arabera, ekintza estraeskolarrak beraiek nahi dutelako egiten dituzte, bere borondatea da, alegia.

Zenbait ekintza estraeskolarrak behartuta edota gurasoen aginduz egiten dituzte. Hauen barne, batez ere ingelesa eta partikularra aurki ditzakegu.

Adina kontutan hartuz, aldiz, gero eta helduagoak izan gero eta ekintza estraeskolarrak gutxiago egiteko gogoia ikusten da. Beste kasu batzuetan berriz, txikitatik hasitako ekintza estraeskolarrak uzteko gogoia nabarmena da, hasiera batean gaztearen erabakiaren zati handi bat gurasoen esku zegoelako, baina haunditzen dihoazen heinean bere iritzia, sentimendu eta erabakiaren printzipioa agertzen dihoa.

3- Adina zehar zure lagunekin egoteko denbora ba al duzu?


	ERANTZUNIK GABE	BAI	EZ
NESKAK	0	89	15
MUTILAK	1	90	13
GUZTIRA	0	179	28



GURASOOK JAKIN DEZAGUN



* Zer egiten duzu ordu libre horietan?



Galdera hau erantzun ahal izateko zenbait aukera eman dizkiegu. Ikasle gehienek erantzun bat baino gehiago eman dutenez, erantzun kopuru altuak ditugu.

Goian ikus dezakegun bezala, orokorrean gustukoena dutena lagunekin hitz egitea da eta bigarren maila batean, mutilei kirola egitea eta jolastea gustatzen zaie eta neskeei aldiz, musika entzutea.


Kasu honetan bestelakorik jartzen duen lekuan etxeko lanak barneratu ditugu, gazte askok aipatzen baitizkigute.



GURASOOK JAKIN DEZAGUN

** Denbora librean egiten duzunak, benetan betetzen al zaitu?*

	ERANTZUNIK GABE	BAI	EZ	ERDIZKA
NESKAK	8	64	5	26
MUTILAK	5	70	14	16
GUZTIRA	13	134	19	42




Gazte havei bere denbora librean egiten dutenak betetzen dituela ikusi dezakegu, ateratako portzentaiak kontutan izanik, noski.

Bai erantzun dutenei zergatik galdetzen diegunean, egiten dutenarekin gustura daudela eta lagunekin ondo pasatzen dutela esan digute. Ez edo erdizka erantzun dutenek berriz, hau erantzun dute, aspertu egiten direlako edota ez dutelako leku aproposik beraiek elkartzeko.



* Non biltzen zara lagunekin?



		MUTILAK	GUZTIRA
ERANTZUN GABE	3	2	5
FUTBOL ZELAIAN	12	4	16
PLAZAN	28	19	47
ELIZALDE ESKOLAN	9	4	13
HAURTZARO IKASTOLAN	58	60	118
POLIKIROLDEGIAN	4	19	23
LAGUN BATEN ETXEAN	20	20	40
URBANIZAZIOTAN	13	17	30
BESTELAKORIK	30	23	53

Gazte hauen bilgunea, orokorrean, lehenik eta behin ikastola da eta bestela, plazan edota lagun baten etxean biltzen dira. Neska eta mutilen bilguneak berdinak direnez, elkarrekin ibiltzen direla suposa dezakegu.

Aipagarria ikusten dugu, era batera edo bestera berezia iruditu baitzaigu, DBH 2.mailako gazteen topagunea okindegia dela jakitea.



GU ERE KAZETARI

DBH 2. ZIKLOKO DELEGATUEKIN MINTZO

Txi.- Zein funtzio bete behar dituzte delegatuek?

Del.- Gelakideak ordezkatu zuzendaria eta tutoreen aurrean, gelako arazoak tutoreei komunikatu, zuzendaritzatik bidalitako mezuak gelakideei aurkeztu...

Txi.- Delegatuak aukeratzeko zein pauso jarraitzen dira?

Del.- Aurrena, nahi dutenak presentatzen dira eta ondoren botaketaren bidez delegatua eta delegatuordea aukeratzen dira.

Txi.- Delegatu izateak ikastetxearen funtzionamendua hobeto ezagutzen laguntzen al du?

Del.- Bai, laguntzen du.

Txi.- Beste ikastetxeetako delegatuekin harremanik ba al duzue?

Del.- Ez ditugu ezagutzen, beraz, ez.

Txi.- Nolakoa da zuzendaritzarekin duzuen harremana?

Del.- Ona, baina iritzi batekin ez bagaude ados, ba, ez hain ondo.

Txi.- Ikastolako partaideek (irakasle-ikaskideek...) aintzakotzat hartzen al dute zuen lana?

Del.- Bai, hala uste dugu behintzat.

Txi.- Nola ikusten duzue ikastola?

Del.- Ondo dago. Gainera, ikasleek abantaila asko dituzte beste ikastolekin konparatuta, nahiz eta batzuetan ados ez egon.

Txi.- Zer ikusten duzue hobetzeko premian?

Del.- DBH 3. eta 4. mailakoentzat leku berezi bat beharko genuke, eta gainera proiektuan dago.

Txi.- Zein dira dituzuen helburuak aurtengo ikasturterako?

Del.- Araudiko gauza batzuek aldatu eta DBH 2. ziklorako leku berezi bat egitea.

Txi.- Zer da zuentzat delegatua izatea?

Del.- Gelaren ordezkari izatea.

Txi.- Gustura al zaudete lan honetan?

Del.- Bai, baina bilerak jolas-garaietan izan beharrean beste ordutan izan beharko lukete.

Txi.- Bitxikeriaren bat baldin baduzue, orain duzue aukera.

Del.- Ez daukagu.

En una conversación sostenida con l@s delegad@s de la ESO, nos han contado los planes para este año como el conseguir un sitio específico para el 2º ciclo de ESO. El ser delegad@s les ayuda a conocer mejor el funcionamiento de la ikastola y están a gusto en ella.



Yolanda Etxeberria



Oihana Andueza



Harkaitz Vecino



Gorka Irigoien



Tania Gonzalez



Jakobe Beramendi




Itsasne Albaréz




Alazne Inziarte






NAHASTE BORRASTE



Zein da kontinente bakoitza?



-  → AFRIKA
-  → AMERIKA
-  → EUROPA
-  → ASIA
-  → OZEANIA
-  → ANTARKTIKA


HEZURRAK

ERRADIO BUREZUR
ZANGAR BESONDOA BELAUNBURU
PERONE KUBITU
KLABIKULA




H E S T E M E H A R R A
K A L U K I B A L K A S
E U A P A S T E R I U K
R K B O T R O T E L R A
R U A I D B R K U B U T
A B G B T N K A T X B A
D I N I L U O Z G K N S
I L A H O T A S P N U U
O U Z I N G O R E R A N
A E N O R E P L P B L Z
B U R U K O H Z U R E H
E R A R R U Z E R U B I


Zein da irudi bakoitzaren balioa?




-  =
-  =
-  =
-  =
-  =

Ea marrazten dituzun harrelakaak baina KONTUZI arkatza jaso ga-be eta bi aldiz bide berdina egin gabe.








Pareak bai ?


JOSTETA - JOLASA




Gela txukuntzeko asmoz, Txominek bere gauzak bildu behar ditu. Zapata eta galtzerdi pareak osatzen lagun ezazu. Zenbat pare aurkitu duzu ?



Koloreztatu!



Errepika ezazu!



Aurre matrikula epea, laister
irekiko da.

Agur bero bat.

Con el Nuevo Año, comienza la
pre-matricula para el próximo curso.

Un saludo.

HAURTZARO IKASTOLA



DENON ESKURA



kutxa

fundazioa
fundación